

XagunArtea

2012ko irailaren 25a

Xagun aldizkaria

BEREZIA

Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren XVIII. azoka





Jende ugari gerturatu zen azoka egunean, eta salmenta-postuetan ikusmiran ez-ezik erosketak egiten ere asko ibili ziren.



Sagar muztioa egiten herriko mutil gazteak fin aritu ziren lanean.



Itsasontzi baten, Xapre eta Jose Antonio.



Gozogintzako tailerrean egiten eta ondoren jaten gozatu zuten.



Herriko eskolako haurren baratzeko produktuak ere erakusgai.



Kolore biziko postuak egon ziren garaiko barazki eta fruituekin.

Eguraldiak lagunduta jendea etengabe joan-etorrian ibili zen.



Salmenta postu koloretsuak egon ziren azoka hasieran. Amaieran gehiena salduta.



Lixibagileak urteroko lanean aritu ziren.



Azoka aurreko astean prentsaurrean aurkeztu zuten egitaraua.



Xaboi, tinte eta lurrun naturalak ere egon ziren postuetan.



Hasiera estua izan zuen hiru bikoteen arteko aizkora saioak.



Xabi eta Eneko herritarrek lan txukuna eginda irabazi zuten.



Sei kana-erdiko lanean Xabi eta Eneko, Lakiola eta Urteaga, eta Mendiata eta Josebita bikoteak aritu ziren nor baino nor.



Iaz bezala, Ander Goitiak irabazi zuen txinga jokoa.



Albaola elkarteko Agote itsas-gizona ere ausartu zen txingekin.